

Karkara

karkara.eus

Orioko eta Alako aldizkaria · 2015eko irailaren 25a · Arraunaren zenbaki berezia



Inoiz baino gehiago, herria eta traineruak bat

Zaleak eta elkarteak elkarrekin egin dute boga 50. urteurrenean, eta Nazioarteko Estropadak berreskuratzea lortu dute, besteak beste.

3
Kronika
Ibon Huegun

8
Elkarrizketa
Ibon Urbieta

21
Iritzia
Iratz Urkizu

34
Erreportajea
Kontxa

PUBLIZITATEA



Osatu galdetegia bazkide izan nahi baduzu
eta entregatu Orioko Arraunketa Elkartean

Izena*

Abizenak*

NAN zenbakia*

Helbidea*

Herria*

Posta Kodea*

Jaiotze Data*

E-posta*

Telefonoa*

ARRAUNAREN ZENBAKI BEREZIA

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Erredakzio burua

Miriam Garcia

Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Iñigo Exposito,
Jon Garate
Iñaki Iturain,
Idurre Lizarralde,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Idurre Telleria

Zenbaki honetako boluntarioak

Antonio Campos,
Manu Etxeberria,
Ibon Huegun,
JoxeMari Olasagasti,
Iratz Urkizu,
Itzea Urkizu
Diseinua
Saioa Perona

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanenen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

Portadako argazkia

Joxeju Olasagasti

Kontraportada

Irailaren 9an zendu zen Alberto Schommer argazkilaria ateratakoa da kontraportadako argazkia



LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Eusko Jauriaritza
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Denboraldiaren balantzea

IBON HUEGUN

Amaitu da 2014-15 denboraldia eta iritsi da balorazioa egiteko garaia. Batzuk botila erdi hutsa ikusiko dute, besteek erdi betea. Beti egongo dira gustu guztietako iritziak. Guk alderdi positiboak azpimarratu nahi ditugu. Hiru traineruak goi mailan ditugu: neskak Euskotren ligan eta Kontxan sartu dira bigarren aldiz, 2014an egindako gorakadari jarraipena emanaz; mutilen B trainerua KAE-1 ligan arazorik gabe mantendu da, lehenengo txandan nagusituz, eta behar-beharrezkoa den harrobiko lana sustatuz; lehenengo trainerua ere, hirugarren urtez jarraian, San Miguel Ligako ohorezko txandatik atera gabe aritu da urte osoan, beti banderen lehian. Guztira bi bandera irabazi ditugu. Orio Arraunketa Elkartea egoera honetan egonkortuta egotea oso garrantzitsua dela uste dugu. Maila honetan gauden bitartean, lanean burugogor jarraitzen badugu, izango dugu garaipen garrantzitsuak lortzeko aukera. Guk, Orio Arraunketa Ekarteko familia osatzen dugunok, horixe promestu dezakegu etorkizunean ere: lana, lana eta lana.

Amaitzeko, Igor Makazagarekiko esker ona adierazi nahiko genuke. Lau urte egin ditu gure artean eta bere arrastoa utziko du dudarik gabe. Orio Arraunketa Elkartek lau urte hauetan izan duen bilakaeran garrantzia handiko pertsona izan da Igor. Oriorekiko erakutsi duzun konpromisoagatik eta lanerako izan duzun prestutasunagatik, mila esker Igor!

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara

688 859 682 (Idurre)

karkara@karkara.com



karkara.com

2015 DENBORALDIA

99 JARDUNALDI
583 ONTZI URETARATU
4342 PERTSONA
132 SARI

BATELAK  16 BANDERA

 2 TROFEO

 14 URREZKO DOMINA

 3 BRONTZEZKO DOMINA

TRAINERILAK  2 ZILARREZKO DOMINA

 3 BRONTZEZKO DOMINA

AULKI MUGIKORRA  2 BANDERA

 4 TROFEO

 29 URREZKO DOMINA

 29 ZILARREZKO DOMINA

 16 BANDERA

TRAINERUA  7 BANDERA

 2 ZILARREZKO DOMINA

 3 BRONTZEZKO DOMINA

“Gauza polit asko ezagutu ditut hunkitu nautenak”

Urtzi Garmendia

Digitalak ekoiztetxeko langilea

Arraun denboraldia bukatuta, arraun gosez gelditu direnentzat *pilula* polita prestatu du oriotarrak Orioren 50. urteurrena aitzakia hartuta: *Tribu horia* dokumentala.

OLATZ ARTOLA

Orioko arraunzaleak marea horia izan dira maiz. Estropada non, horiz jantzitako oriotarrak han. Tribu hori horren inguruko dokumentala ekoitzi du Urtzi Garmendiak.

Ideia nondik sortu zitzaizun?

Ohartu ginen Orio A Eren urteurrena zela. Orio arrauna da eta arrauna Orio denez, produkturen bat egiten ahalegintzeak merezi zuela uste genuen. Bailean bazkari bat egin genuen B. Lertxundi, J. A. Garmendia *Xarpas* eta A. Camposekin informazioa eskuratzeko. Hor sortu zen.

Urteurrenaren aitziarekin egin arren, ez duzue arraun klubaren historia soilik kontatzen.

Datuetara jotzeko esan ziguten hasieran. Nire asmoa ez zen hori. Niri interesgarriagoa iruditzen zitzaidan barrutik nola bizi den azaltzea, sentimendua erakustea. Jendea nola hunkitzen eta haserretzen den kontatu nahi nuen, batzuk ez baitidate sinesten Orion horrenbeste bizi denik arrauna.

Zuri ere bihotza biguntzea lortu dute testigantzek, ezta?

Niretzat berezia izan da. Betidanik ezagutu dut aitagatik arrauna, hortaz, istorio asko banekizkien. Beste asko ez nekizkien. Gauza polit asko ezagutu ditut, hunkitu nautenak. Bereziki, osaba Imanolek egin digun musika egin zait hunkigarria, baita txikitako oroitzapenak gogora ekarri zizkidan Alirona ikustea ere.

Zenbat denboran egin duzue?

Testigantzak bi astetan bildu ditugu eta edizioa ere bi astetan egindako erlojupekoa izan da.

ETBn emititu zen irailaren 2lean. Dagoeneko jasoko zenuten iritziren bat, ezta?

Whatsappa sutan eduki nuen dokumentala emititzen ari ziren bitartean, eta, bereziki, gero. Ni gustura gelditu naiz, nahiz eta sekula ez naizen guztiz gustura gelditzen egiten dudan lanarekin. Ulertzen dut batzuek testigantza batzuen falta sumatzea, baina guztiak sartuz gero sei dokumental osatuko genituzke.



Dokumentala



Dokumentala ikusteko QR kodean jarri irakurgailua:



Harrobia: gaurko lanketa, biharko arraunketa

Epe-laburreko onurak ekarri ditu harrobian fokua jartzeak, horren erakusle **lortutako 16 bandera eta 18 dominak**. Baina harrobiarekin lan egiteak epe-luzera ekartzen ditu etekin handienak.

TESTUA: OLATZ ARTOLA

ARGAZKIAK: JOXEMARI OLASAGASTI

Harrobiko gazteek traineruaren tostak osatzea da Orio Arraun Elkartearen helburua; baina arrauna eta lehia elkar lotuta doazenez, harrobiko arraunlariak ametsa bete dezaten kanpotarrek adinako maila eman behar dute.

Izan ere, arraunzale den oriotar arraunlari guztien ametsa traineruan txokoa izatea da eta horretarako aritzen dira buru belarri lanean, jo eta su. Gazte-gaztetatik. Heldutan ametsa betetzeko. Baina beti ezin desioa egi bihurtu.

Traineruko tostak garesti daude. Mirotzetako bat izateko maila altua behar da. Baina duela bost urtetatik tinko ari dira lanean, harrobian fokua jarrita, etorkizunean lehen taldeko tostartean arraun egiteko moduko maila duten arraunlariak hazten eta hezten. Gerora, oriotarrek osatutako Txiki eta San Nikolas ontzietako kide izateko.

Errotik aldatu, ondo sustraitzeko

Arraunaren habia da Orio, eta Orioko arraunlarien kabia Orio Arraunketa Elkartea. Baina harrobia ahaztu nahi ez zuten arren, ez zituzten behar adina mimatzen etxeko txikiak. Taldearen babesaz zuten, baina ez ziren guztiz babes-tuak sentitzen. Hortaz, urteetan inkontzienteki egindakoa errotik aldatzea erabaki zuten.

Duela bost urte, 2010 urtean, 180ºko bira eman zuen Orio Arraunketa Elkartea. Diru partida handiagoa bideratu zen harrobira. Izan ere, diruak baliabideak izatea dakar, eta baliabideak izateak lana egokiago egin ahal izatea.

Ordutik gazteenekin lana gogor egin dute. Ahalegindu dira haurrak arrauna probatzera animatzen eta behin probatuta, arrauna izan dadin beren kirol hautua.

Arraunak lotu egiten duela diote arraunlari guztiek, lotura estua sortzen dela arraunaren eta arraunlariaren artean. Loturak hamaika, baina lotuta arraunlari gutxi sentitzen dira. Eta, badirudi, zifrek hori islatzen dutela.



148 batel

Sekula izan ez dituzten zenbakiak lortu dituzte 2014-2015 denboraldian. Inoizko daturik onenak izan dituzte. Guztira 148 haur aritu dira elastiko horia jarrita herriko taldea defendatzen. Lehian aritu daitezkeenak infantiletatik gorakoak dira; kimuek arraunean egin dezakete baina ezin dute federatu.

Euskal Autonomia Erkidegoko -EAE- arraun federazioaren arautegiak ez die baimentzen txikiagoei arraun egitera. Estatuko gainontzeko probintzietan, aldiz, legalak diren arraun txapelketak egiten dira.

Oriok Batel Ligako txapelketa bakoitzean 13 batel inguru aurkeztu ditu. Gipuzkoako Batel Txapelketako jardunaldietan, batez beste, bost batel uretaratu zituzten. Euskadiko Txapelketan, asteburu batean bi eta bestean hiru; eta, Espainiako txapelketan, sailkapenetan bi eta finalean bat.

Guztira 148 batel uretaratzeak, 1036 lagun arraunaren bueltan mugitzea ekarri du; ez arraunlariak bakarrik, baita entrenatzaileak eta laguntzaileak.

16 bandera 20 jardunalditan

Inoiz ez da horrenbeste bandera lortu bateletan. Denboraldi honetan 16 lortu dituzte guztira, 20 estropadetan. Baina banderaz aparte, beste hainbat sari ere eskuratu dituzte, 35 denera: 14 urrezko eta hiru brontzezko domina lortu dituzte harrobikoek. Eta, horiez guztiez gain, bi trofeo ere ekarri dituzte.

Garaipen horien artean daude Gipuzkoako lau liga, Gipuzkoako sei, Euskadiko hiru eta Espainiako txapelketa bat eta Loiolako bi bandera.

Eta podiumeko koskarik lortu ez duten baina maila itzela eman duten batel ugari izan dira denboraldi honetan. Sarritan atarian gelditu dira, laugarren postuan.

Denboraldi historikoa

Palmares izugarria lortu dute aurten harrobiko taldeek; garaipen-zerrenda luzea. 2014-2015 denboraldiko kirol memoria ikustea besterik ez dago: 16 bandera, 2 trofeo, 14 urrezko domina eta 3 brontzezko domina. Historikoa izan da denboraldia. Harrobian jarritako pasioak zenbaki onak eman ditu, garaipen eta poz ugari ekarri, txikienen ilusioa piztu.

Bide onetik abiatu ziren, eta duela bost urte ekindako bidean aurrera doaz. Gero eta sendoagoa da Orio Arraunketa Elkartearen harrobia, oinarri indartsua baitauka. Gero eta haur gehiago daude. Ilusioa ere etenik gabe ari da hazten. Gero eta arraunlari landuagoak daude; prestatuagoak, abila-goak, teknikoagoak. Eta emaitzak ere hobetuz doaz pixkanaka-pixkanaka.

Ezbairik gabe, orain harrobian ereiteak etorkizunean fruituak emango ditu. Epe-laburreko onurak dira lortutako bandera eta domina guztiak; baina, epe-luzera, egungo lana lehen traineruan islatuko da. Oriotarrez jositako trainerua ikusiko dugu bogan.

“148 gazte dira harrobian. Zenbaki horietatik kalitatea ziur aterako da”

Ibon Urbleta

Harrobiaren arduraduna eta jubenilen entrenatzailea

Harrobiak etorkizunean poz ugari ekar ditzakeela sinesten du Ibon Urbietak -Orio, 1967- eta horretarako dabil lanean. Orio Arraunketa Elkarteko gazte mailako taldeen koordintzailea da. Jubenilen entrenatzailea ere bada.

OLATZARTOLA

Arraunaz hitz egitean begiek dir-dir egiten diote. Begirada hutsean nabari zaio arrauna duela pasio; ezpainak ireki gabe da gai arraunak beretzat garrantzia itzela duela esateko.

Zenbateko garrantzia du harrobiak arraunketa elkartean?

Ni orain dela bost urte hasi nintzen. Bolada batean ez zitzaion nahi bezain beste indarra eman. Hasterakoan, zuzendaritzako kideekin hitz egin nuen eta harrobia bultzatu nahi zela argi genuen.

Zuzendaritza aldatu zen, baina berriek ere hasitako bide-tik jarraitu nahi zuten. Azkenaldian klubak inplikazio handia dauka harrobian.

Inplikazioaz ari garenean, diruaz ere ari gara, ezta?

Harrobia lantzea ez da soilik lan egitea. Kostu handia dauka.

Harrobia sendotzea etorkizunera begira hartutako erabakia al da?

Helburu nagusia hori da, lehen traineruan edo arraunketa olinpikoan aritzea. Baina, nire aldetik, behintzat, ez da hori bakarrik, ehunka ume ibiliko baitira eta gutxi batzuk iritsiko baitira horra. Ailegatzeko ez direnekin ez dut uste alferrikako lana egiten dugunik. Izan ere, herria arraunean dabilela sentitzen dut, beste hainbat herritan ez bezala, Orion traineruaz gain ehunka ume egiten dute arraun.

Haur guztiek ez badute goi mailako arraunlari izan nahi...

Asko ideia garbi batekin datoz. Txikitatik hor goian ikusten dute beren burua. Horretan eragin handia dute

errezibimenduek.

Eta izan nahi baina lortzen ez dutenek...

Ehunka ume pasatzen dira eta traineruan hemezortzi sartzen dira. Momentua iristean gogorra da, baina urte luzeetan kirola egin dute eta hori aberasgarria da. Gainera, gazte mailatan helburua irabaztea ez den arren, lorpenak betiko gelditzen dira.

Harrobian buru-belarri lan egiteaz gain, lehen traineruan harrobiko arraunlariei aukera ematea ezinbestekoa da.

Jakina. Betiko eztabaida da hori. Jende askok herritar gehiago ikusi nahi ditu traineruan. Horretarako erremedioa erraza da, harrobia ondo lantzea eta bertan duguna kanpoko baina hobea izatea, etxeok berme gehiago izatea.

Harrobian lan egiteak hori bermatuko al dizue?

Epe luzeko proiektua da, baina bai, noski. Ez dut esan nahi lehen egiten ez zenik, kontua da orain beste indar batekin egiten dela. Hasi nintzenean 30 gazte ziren, orain 148 dira. Zenbaki horietatik kalitatea ziur aterako dela.

Elkarte moduan zer hobeturik ba al dago?

Kontua da baliabideak mugatuak direla, esparru guztietan. Eztabaida baliabideak ea ongi banatzen ditugun ala ez da.

Eta banaketa ongi egiten al da?

Nik uste dut oso zaila dela banaketa ondo egitea, baina, bestalde, nahikoa orekatua dela esango nuke. Lehentasuna goi mailako taldea dela argi dago. Batetik, hori baita azken



Ibon Urbieta buru-belarri dabil lanean Orioko harrobiarekin. Ilusio handia dauka. KARKARA

“Gazteetan berdin-berdin tratatzen dira bai neskek eta bai mutilak. Ez da diskriminaziorik egiten”

helburua; eta, bestetik, horrek ondo funtzionatuz gero, beste esparru guztiak lantzeko baliabideak emango baititu. Eta B taldean lana ondo eginez gero, etorkizunean baliabide gehiago lortu ahal izango ditugu.

B taldeko lanak A taldean emango ditu fruituak, eta alderantziz. Eta neskek? Berak ere lehen taldea dira.

Gertatzen dena da baliabideak ematen dituen, zoritxarrez, mutilena dela. Babesleak dituen eta mediatikoki oihartzuna duena mutilen taldea da. Neskek baliabide propioak nabarmen gutxiago sortzen dituzte. Akaso gizartea aldatu eta parekatu egingo dira biak; baliabide berdina sortu ahal izango dituzte. Baina egun ez da horrela. Eta mutili bezain beste dedikatzen badiezu neskei, mutilentzat gutxiago izango da eta etorkizuneko etekinak ere txikiagoak izango dira.

Zure ustez erremedioa zein da orduan?

Baliabide batzuk neskei transferituko genizkieke, ziurtatuz mutilek baliabideak sortzen jarraituko dutela.

Iritzi bat da nirea. Sentsibilizatuta nago egoerarekin, eta borondatea ere badago, baina guretzat neskek duten balioa ez da islatzen gizartean. Gizarteak asko mugatzen du.

Harrobian ere desberdintasun hori egiten al da?

Berdin-berdin tratatzen dira bai neskek eta bai mutilak. Ez da diskriminaziorik egiten. Gaztetan, bi taldeentzat ontzi bakarra badago, meritu gehiago nork egin dituen ikusten da.



Itzea Urkizu

Hori horiek

Sentimentu batek eta sentimentu hori bizitzeko ehunka iritzik ere egiten baitute kolektiboa



rio al Serio 2.000 biztanlera iristen ez den herri txiki italiarra omen da; beren txikitasunean, aireportua ere badute. Facebooken ezagutu nuen nik eta, orduz geroztik, nire jaioterri bilakatu da mundu birtualean. Izan ere, sare sozialek bizitza zatiak lapurtzen dizkigutela askotan errepikatzen den arren, zenbait demokraziak baino arnas gehiago eskaintzen digute, nongoak izan nahi dugun erabakitze horretan.

Italiatik gertuagoko txokoetara itzulita, *Oriyoko ponten bataiatutakua da hau*, eta kito. Horrek erabakitzen du, antza, horia sentitu, bizi, erraietan eraman eta kolore hori daraman traineruagatik negar egin dezakezula. *Forofismoei* azalpen logikoak emateko ere tresna bikaina da bataioarena eta, are gehiago, Facebookeko profilean Filipinetako Tolosan bizi zarela jartzen dizunean; Gipuzkoarik sakonenean, *Errealala hil* baita fanatismo ulergarri bakarra.

Nahiz eta txuriurdinak baino gusturago egoteko moduan izan, oriotar asko elizkoi bilakatuko lirateke oraintxe, edo lehenengoz ponte santu horretan bataiatu, zortzi urteko itxaronaldi luzeari, behingoz, amaiera emateko.

Baina autobus horirik eta aliron erraldoirik gabeko uda luzeek ematen dute, besteak beste, Oriok 31 bandera prezia-tu baino altxor askoz ere handiago bat baduela ikusteko: bandera horiek txalotzen dituen masa erraldoia.

Asteburua errepideko kilometrotan hipotekatzen duena. Garai batean estropada bakar bateko hutsak ia barkatzen ez zituena eta, orain, San Nikolas bezainbeste Txiki maite duena; edo hala egin beharko lukeena. Eta, bai, lehorreko arraunzaleoi nortasun kolektibo hori oparitzen diguna.

Jende multzo bati dagokiona da, hiztegiarentzat, kolektiboa. Hamaika gauza izendatzeko erabil genezake, baina, ausartuko naiz esatera, traineru baten barruan eta inguruan bizi den herri batek asko duela hartzeko, hitzaren itzaletik.

Sentimentu batek eta sentimentu hori bizitzeko ehunka iritzik ere egiten baitute kolektiboa. Ondo gogoratzekoa da, beraz, Orio Orio egiten duen palmaserak adina dizdira duela afizioak. Ontzirik indartsuena ere galtzaile bilakatzen baita txalotzen ez duen herririk gabe. Estatzen tentsioa tostetatik bulegoetara pasatu den honetan, iritziek ehundu dezatela, lehia ontzi hori horiek bultzatzeko grina.



Aupa Orio! Aupa oriotarrak!



Manu Etxeberria

Arraunzaleek bazekiten bi traineru onenen entrenatzaileak oriotarrak zirela. Biak izan dira azken urteetan gure herriko tradizioari segida eman dioten oriotarrak

Arraunaren ondaxko banderaren bigarren igandeko bezpera. Aste osoan bezalaxe, komunikabideetan Hondarribiako eta Bermeoko entrenatzaileen hitzak protagonista. Mikel Orbañanos eta Jon Salsamendiren aurpegiak nonahi. Eguraldi ona edo hain ona ez; itsaso nahasia, haize-olatua edo baga; bi segundoko alde, gutxi, edo nahikoa aurrea hartuz gero; irteera txanpa erabakigarria, eta ziabogara aurretik iristea hoberena; itzulerakoan olatuetan poparean etortzea edota kale egotikitik iristea Santaklara parera...

Denboraldi honetan ere, udan zehar, punta-puntan ibili dira bi oriotarrak gidatutako taldeak. Horiz jantzita ez, baina Orioren izena arraunzale eta kirolzale askoren belarrietara eraman dute. Gure Mirotzak ez du urterik onena izan, baina Jonek nahiz Mikelek Orio arraunaren erakusleihoan jarri dute hilabete hauetan. Arraunzaleek bazekiten bi traineru onenen teknikariak oriotarrak zirela. Biak izan dira azken urteetan gure herriko tradizioari segida eman dioten oriotarrak. Orion ikasitakoa barneratu eta egokitu egin dute, primeran, ezin hobeto. Eta emaitza hor dago: Ligak eta Kontxak kolore horia ere izan dute. Eta ez dut zalan-tzarik biak ere nahiago luketeela beren herrira ekartzea sari handi horiek.

Azken albisteek aldaketak iragartzen dituzte elkarteetan. Hitz hauek idatzi ditudanean airean zegoen gure arraunaren lema hartuko duenaren izena. Nolanahi ere, txoko honetatik esan Igor Makazagak azken urteetan egin duen lana txapela kentzekoa izan dela. Kontxako estropaden aurreneko luzea eta estropadaren bukaera bikaina, egin duen lanaren frogia izan ziren, eta hori hobetzea ez da lan makala izango etorriko denarentzat.

Nolanahi ere, datu garrantzitsu bat azpimarratu beharren nago: Orio izan dela Kontxako bi ohorezko txandetan, emazkumezkoetan nahiz gizonezkoetan, ordezkartza izan duen elkarte bakarra. Aupa Orio! Aupa oriotarrak!

IRITZIA



Olatz Artola Apezteguia

Zapi hori fanatikoa



itaren herentzia da arraunzaletasuna. Arraunlari zargaldua izango da askorentzat aita; baina leziorik gabe irakatsi dit arraunzaletasuna -behintzat- sekula zaharkitzen ez den pasioa dela.

Aitak, dena den, ez ditu koloreak maite; arraunarekiko sentitzen du maite-sua. Tolosarra izanik, inoiz ez dit TAKeko -Tolosaldeako Arraun Kluba- urdinez edo arraunlari tolosarrez jositako tosta gorriko elastikorik jantziarazi. Bera ere beti neutral joan izan da Donostiako portura. Arranplako giroak oilo-ipurdia jartzen dio, arraunketaren burrunbak taupadak azkartzen dizkio, begiak dir-dir jartzen zaskio arraunlariak lur jota ikustean; baina behin ere ez du sutsuki aldarri egingo traineru baten alde.

Nolako enborra, halako ezpala dio esaerak. Hasiera batean hala zen, Oriora etorri nintzen arte.

Oraindik harrigarria egiten zaidan arren arraunlariak heroiak balira bezala tratatzea, *gureak* izatea, eta estropadak denboraren orratzak gelditzeko adina garrantzia izatea; jarraitzaile fanatiko papera hartzen ari naiz.

Oporretan, talde gipuzkoar batek lehen aldiz Kontxa irabazi zuenean bezain pozik nengoen Oriok bigarren egin zuenean, edo zoriontsuago.

Eta, tosta horretako grinak eta kemenak lehen aldiz kamiseta horia janztera eraman nau. Kontxan urduri egotera. Alai nahiz triste sentitzera. Koloreak aldarrikatzera.



Historia -etorkizuna



Antonio Campos

Nabaria da gure klubaren lan historikoa, baina, zerbait aipatzekotan, 1970. urtean irabazitako Kontxako estropadari egingo nioke erreferentzia, egun hartan arraunaren historia aldatu baitzen.

1965ean arraun elkarte abian jarri genuenean bi helburu genituen: batetik, Orion eta inguruan zegoen indarra, kemena eta jakinduria biltzea; bestetik, Orioko arraunlarien kalitatea ikusiz eta jakinik munduko edonoren aurka lehiatzeko gaitasuna zutela, orduan egiten zen arraunketa bultzatzen zuen arraun elkarte sortzea: *Club Remo Olímpico Orio* izenpean.

Espainiako Federazioak emandako urrezko domina aintzat harturik, nabaria da gure elkartearen lan historikoa, baina, zerbait aipatzekotan, 1970. urtean irabazitako Kontxako estropadari egingo nioke erreferentzia, egun hartan arraunaren historia aldatu baitzen. Ordurarteko lehia, talde bat osatu, pare bat hilabetez entrenatu eta estropada jokatzera mugatzen zen. Urte hartan Orioko trainerua 14 atletez osaturik zegoen, eta ikaragarritzko erakustaldia eman zuten. Kontxan bildutako jende guztiak kontu bera aipatzen zuen: *oriotarrei irabazteko haiek egiten duten berdina egin beharra dago!*

Hortik sortu ziren gaur tostarteko arraun munduan ezagunak ditugun entrenatzaile, prestatzaile, mediku eta urte osoko entrenamenduak. Lehia kirol bihurtu zen eta gaur arrauna eta arraunlariak elitekoak dira. Gogoetarako zenbait puntu:

-Zergatik 7 oriotar, liga berean Oriorekin lehiatzeko aukera izanda, Getariara joan dira? Galdera horri erantzun jator bat eman eta dauden arazoak norbaitzuk konponduko balituzte, Orioren arraun etorkizuna ziurtatuta legoke.

-Jubeniletatik TKE ligarako jauzia handiegia da, tartean beste zerbait behar da.

-Orioko klubaren helburuak KAE-1 irabaztea behar luke izan. Hori horrela izanik TKE, Kontxa, eta txapelketak helburu izatetik harrobi lanaren ondorio izatera pasatuko lirartekeelako.

-Orioko traineruan, oriotarren presentziak %60 edo %75ekoa izan beharko luke gutxienez.

-Oriok irabazteko bidea berrartu behar du berriz, baina, presarik gabe; historia ez baita bi egunetan idazten den zerbait, urteen poderioz baizik.

Posdata: 1970eko Kontxa irabazi zuen traineru hartako arraunlariak arraun elkartearen egoitzan leku berezi batean, argazki eder bat merezi dutelakoan nago, lelo batekin: hau da arraunaren historia aldatu zuen tripulazioa.



Paladaz palada mende erdiraino



orio arraunarekin lotzen duen lehen erreferentzia 1897ko Kontxako Estropada bada ere, arraun elkarteak dezente beranduago sortu zen, 1965an. Urte horretan jaiotako elkarteak aulki mugikorraren aldeko apustua egin zuen, tradizioa galdu gabe, olinpismorantz joateko. Hiru urte geroago, 1968ean, antolatu ziren Nazioarteko Estropada lehen aldiz. Aurten, urteurrena ospatzeko, mimo bereziz biziberritu dute galduta zegoen Nazioarteko Estropada. Apirilaren 4an izan zen. Guztira hogeitale uretaratu ziren. Euskal Herritik, espainiar estatutik eta nazioartetik etorri ziren. Sona handiena izan zutenak Cambridge eta Molesey taldeak izan ziren, Ingalaterratik etorri baitziren.



50. URTEURRENA



Zubia jendez lepo. Bi zortziko zubi azpitik igarotzen. KARKARA

Denbora luzez amestutako Nazioarteko Estropada

1968ko Nazioarteko Estropada bizi izan zutenek festa jendetsua dute gogoan. 47 urtean 15 aldiz antolatu dute, azkena 2009an. Arraunketa elkarteak 50 urte bete ditu aurten, aitzakia ezin hobea berriz antolatzeko. Bizia hartu du berriz Nazioarteko Estropadak, urte luzez amestutakoa bete dute. Apirilaren 4an izan zen eta festa giroa nagusitu zen egun horretan Orion.



Lemazaindun zortzikoan Orioko mutilak. KARKARA



Orioko neskak lemazain gabeko lauokan. KARKARA





Parte hartu zuten arraunlari guztiak, aurkezpenean. KARKARA



Talai Mendi txarangako hainbat kide. KARKARA



Xabi Iburguren eta Jon Agirresarobe, aurkezle lanetan. KARKARA



Haurrak jolasean eta margotzen aritu ziren plazan. KARKARA

Hamaika kontu eta 50 urte

Eguneko ekitaldirik garrantzitsuen estropada izan arren, ez zen hori izan egitaraua jantzi zuen ekintza bakarra. Taldeen aurkezpena, haurrentzat jolasak eta txaranga lehiaketa ere izan ziren. Horrez gain, ohiko ekintzak egin dira denboraldian: Garagardo Azoka, Orioko Bixigua bandera jokoan zegoen estropada...

AULKI MUGIKORRA

Indartu arren, aulki mugikorrean hobetzekoak daude

50. urteurrenarekin, Orio Arraun Elkartearen hasierako esentzia berreskuratu nahi izan dute, **aulki mugikorra hauspotzea** izan baita elkartearen xedeetako bat. Arraunaren modalitate hau bultzatu arren, oraindik tostako arrauna da nagusi.



TESTUA: OLATZ ARTOLA
ARGAZKIAK: KARKARA

Traineru horia aski ezaguna da Kantauri kostaldean, baita Mediterraneoan ere. Mirotzak esan eta lehorrekoei ere etorriko zaie gogora hori kolorea. Horia. Orio. Aulki mugikorra, ordea, ez dago horren errotuta Euskal Herrian.

Frantzian egoera bestelakoa da oso. Aulki mugikorra erro-tuago dago. Orion, bide horretatik joateko ahalegina egin dute 50. urteurrena aitzakia hartuta. Arraun mugikorraren aldeko apustua egin dute, apustu irmo bezain ausarta. Bide horretan lehen urratsa eta garrantzitsuena estropada internazionalen antolaketa izan zen.

Baina, etxean antolatutako estropadaz gain, etxekoek atzerrian jokaturako txapelketek ere balio izan dute herrian aulki mugikorra hedatzeko. Gainera, jokatzeaz gain lorpen garrantzitsuak eskuratu dituztenez, are gehiago sendotu da.

Zenbaki potoloak aulki mugikorrean

Aurtengo denboraldian 80 jardunalditan hartu dute parte Orio Arraunketa Elkarteko arraunlariak. Jardunaldi horietan guztietan uretaratutako ontziak batuz gero, 330 ontzi dira txapelketa estropadetan aritu direnak.

Lehiaketa askotan hartu dute parte, eta lortutako sariak ere asko izan dira; guztira 80 sari lortu dituzte: bi bandera, lau trofeo, 29 urrezko domina, 29 zilarrezko domina eta 16 brontzezko domina.

Munduko txapelketaren eta olinpiaden ateetan

Abuztuaren 30ean Frantziako Aiguebelette hirian aulki mugikorreko Munduko Txapelketa izan zen, eta han izan ziren OAEko lau arraunlari. Lemazain gabeko lauokoa, pisu arinean, Imanol Garmendia eta Ander Zabala; eta, lemazain zortzikoa, Jaime De Haz eta Jon Carazo. Helburua Brasilgo Joko Olinpikoetarako txartela lortzea zen. Ez zuten sailkatzea lortu, baina oraindik aukera bat geratzen zaie.

Itzaleko lanak argia eman dio Orioko Arraunketa Elkarteari

Jon Carazo, Jaime De Haz Iraurgui, Ander Zabala eta Imanol Garmendia

Aulki mugikorreko arraunlariak

Gazteak dira oso. Baina eskarmentu handia daukaten gazteak dira. Mundu mailan erreferente diren arraunlarien aurka lehiatu dira, maila ona erakutsi dute eta Euskal Herrian berak bilakatu dira erreferente.

OLATZARTOLA

Ezkatuko lan handia egin dute, urte luzez, Orio Arraunketa Elkarteko aulki mugikorreko arraunlariak. Aulki finkoaren itzalean egoteak zaildu egin du beren ikusgarritasuna. Ordu-ra arteko egindako lanak fruituak eman dizkiete, garaipenak lortu dituzte, eta irabazle izateak Orioko arraunaren erakuslehoaren parte izatea ere ekarri die.

Hauspotu egin nahi izan dute elkartean aulki mugikorra, eta etxekoen garaipenak lagundu egin du horretan. Mundu mailako lehiaketetan protagonista izateak herri mailan aitortza izatea ekarri die.

Munduko Txapelketatik lurreratu berri zirenean hitz egin genuen Jon Carazo, Jaime De Haz Iraurgui, Ander Zabala eta Imanol Garmendiarekin. Frantziako Aiguebelette herrian jokatu zuten mundiala, irailean.

Zer nolako esperientzia izan da Mundialekoa?

Jon Carazo: Eraitza guztiz gogobetekoa izan ez den arren, hau da, nahi ez bezalakoa izan den arren, taldean giro itzela izan dugu. Baloratzeko modukoa da taldekideon artean izan dugun harremana eta aulki mugikorrean egin dugun talde lana hilabete hauetan guztietan.

Jaime De Haz Iraurgui: Gorengo kategorian, absolutuetan, izan naizen lehen mundiala da. Esperientzia berria izan da niretzat. Eta, hori kontuan izanik, gauza asko ikasi ditudala azpimarratuko nuke.

Ander Zabala: Aurtengo mundiala nire lehen munduko txapelketa izan da maila absolutuan, eta aldaketa nahiko nabarmena izan da lehengo urteko mundialekin alderatuta. Hala ere, oso esperientzia ona izan da puntako arraunlarien kontra neurtzea. Gainera, mundial aurre-olinpikoa izanda, talde guztien maila ezin hobea izan da.

Imanol Garmendia: Mundiala ez da aurtengo esperientziarik onena izan. Urtean zehar lan handia egin arren ez dugu helburua lortu. Hala eta guztiz ere esperientzia guztietatik ikasi behar da eta gogotsu gaude hurrengo denboraldirako.

Izan ere, Munduko Txapelketa honetan zenuten helburua Rioko Joko Olinpikoetara sailkatzea zen. Garmendia eta Zabala lemazain gabeko lauko arinean lehiatu zarete; eta Carazo eta De Haz Iraurgi lemazain zortzikoan.

Carazo: Diozun bezala, gure helburua Riora sailkatzea zen, baina zortzikoaren kasuan helburua bestelakoa zen. Lehiatzea zen genuen betebeharrak, gure ontzia formakuntzan zegoen ontzia baitzen eta horren aldeko apustua egin baitzuen federazioak.

De Haz Iraurgui: Hori da, zortzikoaren kasuan olinpiadetara sailkatzea ez zen helburua. Taldeko arraunlari gazteenek osatu genuen ontzia, eta helburua etorkizunerako prestatzea zen. Hau da, orain emaitzak lortu ordez etorkizunean lortzea.



Mundialean parte hartu duten Orio Arraunketa Elkarteko lau arraunlariak. IMANOL GARMENDIA

“Mundiala ez da aurtengo esperientziarik onena izan. Urtean zehar lan handia egin arren, ez dugu helburua lortu”

IMANOL GARMENDIA

Zabala: Gure kasuan, ordea, bai. Lehen aipatu dudan moduan, mundial aurre-olinpikoa izanda, helburua Joko Olinpikoetara sailkatzea zen. 0,6 ehuneneko tartea izan da helburutik kanpo utzi gaituena. Hala ere, hainbat kontu hobetu behar ditugu; hobetu daitezke, hortaz, helburuak bizirik dirau.

Garmendia: Bai, hori zen helburua, eta lortu ez izanak dezente tristatu gaitu. Baina kirola horrela da eta hurrengo urtean lortzeko lana gogoz egingo dugu.

Dena den, beste aukera bat duzue oraindik. Frantziako Aiguebeletten lortu ez dutena Suitzako Luzernan lortu dezakezue.

Carazo: Hori da. Baina zortzikoak sailkatzeko aukera erreallik ez duenez, fokua sailkatu daitezkeen ontzietan jarriko dugu. Laukoak, adibidez, helburuagatik borrokatu dezake eta hori lortzea da jomuga.

De Haz Iraurgui: Beste ontziak ere ez sailkatzean, zortzikoak osatzen dugun arraunlarietako batek beste txaluparen batean eduki dezake tokia. Baina horretarako lan handia egin beharko dugu, hori lortzea ez da batere erraza.

Zabala: Lan handiko zortzi hilabete ditugu aurretik. Gogor eta zehaztasun handiz lan egin behar dugu hilabete horietan maiatzean maila gorenean egon nahi badugu. Hori izango baita gure azkenengo aukera Rioko Joko Olinpikoetan.

AULKI MUGIKORRA

egoteko.

Garmendia: Sailkapena ez dugu urruti ikusten. Arazoren bat eduki dugu denboraldiaren azken partean eta hori emaitzan islatu da, eragina izan du. Maiatzean izango da bigarren aukera eta ziur gaude barruan egongo garela.

Lorpen ugari egin dituzue denboraldi honetan eta sona handia ari zarete izaten. Horrek Orion aulki mugikorra indartzen lagundu duela uste al duzue? Eta aulki mugikorra indartsu ikusten al duzue?

Carazo: Senior mailako arraunlariak bi modalitateak uztartzera animatzea lorpen bat da. Hau da, tostako arraunketaz gain, aulki mugikorra egitera animatzea pozgarria da, horrek aulki mugikorreko taldea indartzen laguntzen baitu.

De Haz Iraurgui: Emaitzak izatea lagungarria da beti, taldea promozionatzen laguntzen du. Eta hori ona da, noski. Aulki finkoak Euskal Herrian mugikorrak baino askoz ere indar handiagoa du. Baina ea arraunlariak bi modalitateak uztartzera animatzen diren, hori lortu behar dugu.

Zabala: Denboraldia gustatu litzaugukeen bezala amaitu ez dugun arren, Joko Olinpikoetarako sailkapenarekin, 2014-2015 denboraldiaren irakurketa positiboa egin dezaket. Nazioarteko mailan emaitza onak izan ditugu, nola laukoan hala bikoan.

Bestalde, maila nazionalean errendimendu handia izan dugu, Espainiako txapelkunordeak izan baikara. Honek klubean ondorio positiboak izan ditzakeela uste dut. Izan ere, Orioko Arraunketa Elkartea klub garrantzitsua da oso, eta beti da inportantea aulki mugikorrean zein finkoan maila gorenean egotea.

Garmendia: Kirol guztietan bezala emaitzak daudenean jendea animatu egiten da. Orion aulki mugikorrak nahiko garrantzia dauka eta zortzikoaren tradizio handia dago. Hala ere, hobetzekoak ere badaude. Baina nire iritziz azken urte hauetako bidetik jarraitu behar dugu, aulki mugikorra indartu egin baita.

Klubaren urteurrena da aurten, 50 urte bete ditu. Beren asmoa aulki mugikorra indartzea zen. Lortu dutela uste al duzue? Nazioarteko estropadak antolatu dituzte...

Carazo: Nazioarteko estropadekin Orio Arraunketa Elkar-teak gainontzeko elkar-teei antolatzeko duen gaitasuna handia dela erakutsi die. Horrez gain, kanpoko arraunlariei Oriok duen afizioa erakusteko balio izan du, eta harritu egin ziren dagoen afizioa ikusita.

De Haz Iraurgui: Baietz uste dut, baina hala ere ez zain iruditzen emaitzak epe motzera ikusten direnik. Denbora behar izaten da fruituak jasotzeko.

Zabala: Bai, dudarik gabe. Orioko Nazioarteko estropada berreskuratzeko eragin handia izan du estatu osoan zein beste hainbat lekutan –Frantzia, Ingalaterra, Portugal...– Ziur nago bide luze baten pausu oso garrantzitsua izan dela.

Garmendia: Aurtengo estropada internazionala sekulako arrakasta izan zen, ikusgarria. Mundu guztiak eskertu du berri egitea. Azkeneko bi urteetan Espainiako txapelketan izan gara eta, nahiz eta ez irabazi, maila oso ona eman dugula pentsatzen dut. Hori horrela izanda, indartu eta sendotu dela pentsatzen dut.

“Senior mailako arraunlariak mugikorra eta finkoa uztartzera animatzea lorpen bat da”

JON GARAZO

“Gogor eta zehaztasun handiz egin behar dugu lan maiatzean maila gorenean egonteko”

ANDER ZABALA

“Emaitzak izatea lagungarria da beti, taldea promozionatzen laguntzen du”

JAIME DE HAZIRAURGUI

Kontxak Orion duen berezitasuna



Iratz Urkizu

Emaitza baztertu eta bizi dituzten koloreak defendatuz, arraunlariei egindako lana eskertzen zaie. Kanpoko jendea harrিতuta geratzen da hori ikusi ondoren



Arrauna eta Orio, Orio eta arrauna, bi hitz ezberdin dira baina oso lotuak aldi berean; batez ere iraileko lehen bi igandeetan jokatzen den Kontxako estropadan.

Estropada hau, gainera, oriotarrentzat garrantzitsua bezain berezia da. Arraun talde askok hartu nahi izaten du parte bi eguneko estropada honetan, baina, batez ere, oriotarrek. Azken urte hauetan, bi talde oriotar izan dira han, gizonezkoena baita emakumezkoena ere.

Bai Kontxak Orion eta bai Oriok Kontxan indar berezia dute, izan ere, 31 bandera dituen bezala, beti faboritoen artean egoten da, baina orain beste arraun taldeak ere, Orio bezain ondo prestatzen dira estropada honetarako eta irabaztera doaz gainera.

Arraunlariei ilusio berezia ematen die bandera hau jokatu eta irabazteak, gainera egun honetan arranplan bertan biltzen den afizio guztia, haur txikienetik hasita pertsona nagusitaraino, horiz jantzita txalo eta oihuen artean beraiei animatzen ikusteak, indar handiago ematen die estropada irabazteko.

Baina afizio ikusgarri honek ez ditu animoak bakarrik

ematen, presioa ere eragiten du, Oriok duen izena edukita afizioa ez da estropada on batekin konformatzen, Kontxan behintzat, jendearen nahia bandera etxera ekartzea da. Eta horrekin, ez dugu berak irabazteko jartzen duten grina ikusten, hori lortzeko pasa dituzten une guztiak estimatzen.

Bestalde, onartu beharra dago, jendea estropada amaieran, irabazi behar hori alde batera utzi eta animatzera jaisten dela arranplara. Eta hori miresteko zerbait da, han ikusten baita, emaitza baztertu eta bizi dituzten koloreak defendatuz, arraunlariei egindako lana eskertzen zaiela. Zaletu gutxitan ikusten da hori, eta horixe da Orioko zale-tuen berezitasun bat. Kanpoko jendea harrিতuta geratzen da hau ikusi ondoren, eta oilo ipurdia jartzen zaiela ere aitortu izan dute noizbait.

Txanpa txiki bat falta izan zaie, bandera etxera ekarri ahal izateko, baina txanpa txiki hori ezin izan dute gaintu. Aurten irabaztea zaila egon da, aurkari gogorak izan dituzte eta batzuetan zorte txarra ere bai alboan. Ahal duten guztia eman dutela ikusi da. Beti ezin da irabazi, eta hori ondo dakigu, baina horrek ez du esan nahi amore eman behar denik. Beraz, irabazi edo galdu balearen bertsoek diotena oihukatu dezagun: *gora oriotarrak esan beldur gabe.*

Helburua lortu dute: KAE-1 ligari eustea

Helburuak hala nola edo maisutasunez lortzearen artean desberdintasun handia dago. Orio Bk KAE1 Ligan jarraitzea zuen helburu, **eta erraz bete dute hasieran jarritako jomuga.** Bederatzigarren postuan amaitu dute.

TESTUA: MIRIAM GARCIA

ARGAZKIA: HECTOR SELJO

Arraunlariak heztea eta lehen talderako prestatzea da, historikoki, kirol elkarte bateko bigarren taldearen helburua. Horixe da, baita, Orio Arraunketa Elkarteko B taldearena ere; horretan saiatzen da, behintzat, Endika Uranga entrenatzailea.

Baina aurtengoan bazuten beste helburu bat ere: maila mantentzeko intentzioarekin hasi zuten denboraldia Orio B taldeko mutilek. Eta ongi mantendu ere; bederatzigarren postuan amaitu dute KAE1 liga oriotarrek.

Gora ez dugu egiten, baina ezta behera ere. Azkenean, gure maila eustea da garrantzitsuena, badakigu ezin dugula gora begira ibili, zioen Unai Lizarralde denboraldi erdian.

KAE1 ligan jokatu dituzten 14 estropadatatik sei hamargarren postu, bost bederatzigarren, bi zortzigarren eta hirugarren bat lortu dituzte. Azkenean, bederatzigarren egin dute ligan, Santurtziren aurretik, 58 punturekin.

Lehen taldera begira

Arraunean hasten den edonork lehen taldean arraun egitea du helburu, txikitatik. *Umetatik trainerua hor ikusten dugu, punta-puntan, eta gure ametsa hori da. Azken finean, traineruan sartzea da arraunean hastearen arrazoi nagusia, zioen Xabier Arregik.*

Bera izan da aurtengo denboraldian lehen taldean debuta egin duen B traineruko arraunlari bakarra. *Oso urduri nengoen, beste arraunlariekin alderatuta, dezente, eta denak ni lasaitzen saiatu ziren estropada aurretik.*



Getarian ere oriotarrak nagusi

Denboraldi bikain baten ostean, Getariak irabazi du aurten KAE1 liga. Historikoki Orio AErekin harremana izan duen arraun elkartean, aurtengoan ere, sei oriotar aritu dira: Andoni Atorrasagasti, Andoni Campos, Jon Gaztañazpi, Mikel Indo, Josu Makazaga eta Agustin Mujika arraunean, eta Gorka Etxeberria entrenatzaile lanetan.

Liga irabaztea eta Kontxako sailkapen estropadan egindako postu ona izan ziren Getariaren pozak denboraldi bukaeraren *Playoff*ª jokatu eta hainbeste desiotako igoera hura ez lortzea, tristura.

Zumaiarrak dira saltoa egitea lortu dutenak, hurrengo denboraldian TKE ligan jokatu dutenak. Talde horretan ere badira bi oriotar: Xabier Ostolaza arraunean eta Rafael Gonzalez de Txabarri prestatzaile lanetan.

ZENBAKIA

10

KAE1eko arraunlari oriotarrak. Hamar dira, Orio AEkoez gain Aurten KAE1 ligan arraun egin duten oriotarrak: sei aritu dira Getarian, bi Ondarrun, bat Zumaian eta beste bat Zarautzen.

KAEI



KARKARA

“Gure helburua Santurtziri irabaztea da”

Unai Lizarralde

2015-07-29

10 urte inguru daramatza arraunean Unai Lizarralde (Orio, 1993-), eta laugarrena du aurten Orio B traineruan. Aulki finkoa eta mugikorra, biak uztartzen dituen arren, mugikorra nahiago duela dio.

MIRIAM GARCIA

Aulki mugikorrean aritzen denak errazago ikasten omen du traineruan ibiltzen alderantziz baino. Antza, konplikatua da aulki mugikorra. Teknikoagoa. Orion errotuago dago tostako arraunketa, baina badira bakan batzuk mugikorra nahiago dutenak. Horietako bat da Unai Lizarralde.

Gazte-gaztetatik dabil arraunean. Hamabi urte zituenean hasi zen, orduan eman zituen lehen paladak eta ordutik ez du estropua askatu. Arraunari lotua dago oriotarra.

Nola doa denboraldia?

Gure mailan ari gara. Urte hasieran nahiko panggal ibili ginen eta uste genuen gaizki arituko ginela. Baina guk gurea egin dugu eta hortxe gabilza Santurtzirekin parean.

Posizioari eusten ari zarete, behintzat. Hori da zuen helburua?

Gora ez dugu egiten, baina ezta behera ere. Azkenean, gure maila mantentzea da garrantzitsuena, badakigu ezin dugula gora begira ibili. Gure helburua Santurtziri irabaztea da, eta baita Zarautzi estropadaren bat edo beste.

Santurtzirekin berdinduta zaudete puntutan.

Bai. Normalean beraiek ibaian hobeto ibiltzen gara, eta gu itsasoan. Orain itsasoko estropadak tokatzen dira eta aurrea hartzeko esperantza dugu.

Getariako estropada da hurrengoa, itsasoan.

Bai, estropada polita da, eta ezaguna. Aste honetan pare bat aldiz joango gara hara entrenatzera. Ilusio handiarekin hartuko dugu estropada.

Zure taldekide batek lehenengo taldean egin zuen debuta pasa den asteburuan. Gora begira zaude zu ere?

Beti gaude lehen taldeari begira, azken finean, arraunean aritzearen ilusioa hori da. Esperantza badugu estropada bat edo beste jokatzeko eta pixkanaka pausoak gorantz emateko. Baina zaila da, maila handia dago eta, gainera, urte osoa aulki mugikorrean egoten naiz eta ez naiz asko aritzen traineruan.

Nola uztartzen dituzu aulki mugikorra eta trainerua?

Normalean gehiena aulki mugikorrean egiten dugu, eta astean behin edo bitan traineruan irteten gara. Aulki mugikorreko denboraldia ekaina amaierara arte da, eta udan traineruan zentratzen gara.

Bietatik bat aukeratu beharko bazenu...

Gustukoago dut mugikorra, orokorrean. Lagunartean gehiena horretan aritu naiz eta txikitatik pertsona berdinekin aritzeak elkar ezagutzea eta emaitza hobek izatea dakar. Gainera, uretatik gertuago eta azkarrago zoaz aulki mugikorrean, ontzia gehiago sentitzen da, eta hori asko gustatzen zait.



KARKARA

“Lehen ontzian sartzea da arraunean hastearren arrazoa”

Xabier Arregi

2015-07-31

13 urte ingururekin hasi zen Xabier Arregi arraunean -Orio, 1992-. B taldean bost urte daramatza, eta pasa den asteburuan, uztailaren 26an, Getxoko estropadan, lehen taldearekin egin zuen debuta.

MIRIAM GARCIA

Arraunlari ororen ametsa da lehiakorra izango den traineru bateko tostan tokia izatea; eta norgehiagoka lehiakorrenetan lehiatzen den taldearen tostan bada, askoz hobe.

Orion, dena den, arrauna erlijioa da. Jaio orduko Orio Arraunketa Elkarteko bazkide dira asko. Hortaz, arraunlaria izatea da oriotar askoren ametsa. Eta, noski, behin amesten hasita, lehen ontziko kide izatea dute helburu.

Bide horretan lehen pausoak 13 urterekin eman zituen Arregik. Orduan hasi zen arraunean. Orduetik buru-belarri aritu da lanean, ametsari segika, itxaropena galdu gabe.

Kontziente da lehen talde horretan tokia izatea gero eta zailagoa dela, maila gero eta altuagoa dela; baina dena da posible, eta, azkenean, ametsa bete du.

Igor Makazagak hitza bete zuen, lehen ontziarekin lehiatzeko aukera izango zuela esan baitzion. Esandakoa bete eta traineruko tostan tokia izan zuen Arregik. Gazte-gaztetatik zuen ametsa egi bihurtu zen. Iritsi zen denbora luzez itxarondako eguna. Lehen ontzian sartu zen.

Lehen ontzira egin zenuen salto asteburuan. Nolakoa izan zen debuta?

Oso gustura geratu nintzen, espero baino hobeto. Estropada ongi atera zitzaigun eta poztu egiten nau horrek. Txanda irabazi genuen, eta horrek sentsazio onarekin utzi zidan. Tal-

dekoek esaten zidaten gozatzeko estropadaz, eta hala egin nuen. Pena izan zen banderatik hain gertu egon eta ez irabaztea.

Nola izan da bigarren taldetik lehenengora saltoa?

Azkenaldian nahiko gertu nengoela ikusten nuen; Igorrek esaten zidan aurten aukera emango zidala eta hala izan zen azkenean. Iritsi zen, behingoz, hainbeste esperotako aukera hura. Oso urduri nengoen, beste arraunlariak baino gehiago, eta denak niri lasaitzen saiatu ziren estropada aurretik.

Galiziako uretan arraun egitea tokatzen da hurrengo asteburuan. Zu ere bazoaz?

Ez, ez noa. Zaila dago lehen taldean sartzea, maila handia dago eta. Lehen ontzian jokatzeke beste aukeraren bat edo beste izango dut, agian, baina ez da finkoa izango. Urte hau B ontziarekin amaituko dut ziurrenik.

Nola ikusten duzu denboraldia?

Pixka bat motel hasi zuen taldeak denboraldia, baina uste dut gorantz doazela. Denboraldia ongi bukatuko dutela uste dut, talde ona dago eta.

Zein da zure helburua arraunean?

A ontzian sartzea, noski. Umetatik trainerua hor ikusten dugu, punta-puntan, eta gure ametsa hori da. Azken finean, traineruan sartzea da arraunean hastearren arrazoi nagusia.

EUSKOTREN LIGA



Aurrerapauso bat gehiago

Hasiberrien ezjakintasunetik helduen esperientzia izatera pasa dira, **koska bat egin dute gora, baina, oraindik, salto bat egin dezakete aurrera.** Sekula ez etsipenetik, beti konstantziatik, kendu dituzten arantzak eta bete dituzte ametsak.

TESTUA: OLATZ ARTOLA
ARGAZKIAK: KARKARA

Arantzak kendu eta kendu ari da Txiki traine-
 ruko eskifaia. Iaz Kontxara sailkatzea lortu
 zuten, eta aurten pasa den urtean hondoratu-
 tako helburua lortu dute, Euskotren Ligan
 nor baino nor ibili diren taldeetako bat izatea.
 Izan ere, lehian parte hartzeaz harago joan dira, aurten,
 neskak. Lehiakorrak izan dira.

Koska bat gora

Denboraldiaren hasieran, Eider Zubeltzuk eta Mireia Uran-
 gak aurreratu zuten aurrerapauso handia eman zutela iaztik
 hona; *hirugarren edo laugarren postuarekin konformatu*
gabe, ahal den goren begiratzea da gure helburua.

Eta lortu dute podiumean sartzea. Estropadaz estropada
 aurkariari hortzak erakustea. Ez daudela besteen itzalean,
 baizik eta hor daudela. Koska bat gora egin dutela kontziente
 den arren, emozioz kontaktzen zuen Lukene Lizasok hori: *Ez*
gaude ohituta horrelako postuetara. Laugarren ibiltzen ginen
beti, ozta-ozta lortutako laugarren postuak, gainera. Baina
emaitza hauek ez dira sorpresa izan. Bai, harritu egin digute
orain arte lortu ez ditugulako, baina gaitasuna genuela bage-
nekien.

Gaitasuna dutela sinesten lehendabizikoak eurak izan
 dira. Konfiantza izaten lehenak, eurak izan dira. *Azken fine-*
an, norberak ez badu bere buruarengan sinesten, inork ez du
sinetsiko, azaldu zuen Onintza Olaizolak. Autokonfiantza
 horrekin lortu dute norgehiagoka horretan onenen artean
 egotea. *Aurtengo sentsazio onena niretzat ziabogara iritsi eta*
alboan traineruak ikustea da, aitortu du Lizasok.

Onenen artean egoteaz gain, guztiak aldeko izanez gero,
 irabazteko kapaz zirela aitortu zuen Klaudio Etxeberriak.
 Alboan izan duten entrenatzaileak sekula ez du amore eman,
 eta lanean jarraitu du, urtez urte, arantzak atera eta ametsak
 betetzeko. Eta neskek irabazteko gogo itzela daukate. Hone-
 la aitortu du Maria Gutierrezek: *lehen estropadak ondo buka-*
ztea zen helburua eta orain irabazi egin nahi dugu.

Gakoetako bat, konstantzia

Aurten koska bat igo dute. *Nabarmena da hori*, aitortzen du
 Klaudio Etxeberriak. Begi bistakoa da emaitzak lortu dituz-
 telako, eta kronometroa bizkorrago geratzen dute lana gogor
 egin dutelako. *Gogor entrenatu dugu hor egoteko, goian*, azal-
 du du Lizasok.

Bide beretik, talde lan handia ari direla egiten azaldu du
 Olaizola zarautzarrak.

Azken urteetan taldea ez aldatzea ere hobekuntzarako
 lagungarria izan zaie. *Nik uste dut eragin handia izan duela.*
Nik, adibidez, hasierako urtetan arraunean ibiltzen zirenak
dauzkat kuadrillan. Aurreneko hiru urtetan batzuk arraun
egiteari utzi zioten, besteak hasi egiten ziren eta ez zen mul-
tzoa mantentzen. Azken hiru urtetan, ordea, bai, azaldu du
Nadeth Agirre patroiak eta Gutierrezek gaineratu du: nik
uste dut horregatik garela onenen artean lehiakorrak.

“Norberak ez badu bere
 buruarengan sinesten, inork
 ez du sinetsiko”

ONINTZA OLAIZOLA

“Kirolariak garen heinean,
 denboraldi amaierarako beste
 salto bat eman nahi genuen”

KLAUDIO ETXEBERRIA

Hobekuntzaren giltza, bat eginda egotea

Arraunak sakrifizio handia eskatzen du. Arraunak ordu asko
 lapurtzen ditu. Eta, horrek, taldekideekin denbora ugari iga-
 ro behar izatea dakar. Hainbeste urte eta gero, elkar ondo
 ezagutzen dute Txikiko arraunlariak, eta hori nabari da
 beren arraunketan. Taldea eginda dago.

Lizasok azaldu bezala, beren artean ondo moldatzen dira.
Hiru urtetan ezagutzen duzu nor utzi behar duzun bakean eta
nor ez muturtuta dagoenean. Begiratze hutsarekin badakigu
besteak zer umore duen, nola dagoen. Eta elkar ondo ezagu-
tzen dugunez, bakoitzarekin nola jokatu behar dugun ikasi
dugu. Errespetua eta konfiantza daukagu.

Lehorreko konfiantza horrek uretaratzean seguruago sen-
 titzea dakar. Uretan ere ziur sentitzea. Eta, horrez gain, la-
 guntasunaren ertz guztiak praktikan jartzea: *ikusten baduzu*
aldamenekoa dena ematen ari dela, ezin duzu gutxiago izan.
Ondoa sufritzen ikusten duzuna ez da taldekide bat soilik, la-
gun bat ere bada; hortaz, laguntzeko beharra sentitzen duzu.
Enpatia handia daukagu batak bestearekin.

Oraindik hobetzeko adina gogo

Aurten aurrerapauso bat eman arren, oraindik badute zer
 hobetua. Horretaz jakitun dira Klaudio Etxeberriaren esa-
 netara dauden neskak, baita entrenatzailea bera ere.
Kirolariak garen heinean, denboraldi bukaerarako beste salto
bat eman nahi genuen. Aurten ezin izan da, aitortu du Etxebe-
riak. Koska bat gora egiteko gaitasun osoa duen taldea duela
sinesten du: talde onena daukat.

“Ahal dugun goren begiratzea da xedea”



Eider Zubeltzu eta Mireia Uranga

2015-07-15

Euskotren Ligara sailkatzea lortu zenuten.

Ez da erraza izan. Denboraldi hasieran jokatu genuen estropadan, Pasaian, Cabori segundo bakarra atera genion. Horregatik beldur pixka bat genuen. Baina larunbateko estropadan 12 segundo lehenago iritsi ginen. Bigarren estropadan lasaiago geunden, nahiz eta edozer gerta zitekeen.

Azkenean sailkatzea lortu genuen, eta beste hiru taldeekin punta-puntan aritzea berezia da guretzat, gogoia pizten digu. Aurrerapauso handia eman dugu aurreko urtetik hona, gogor entrenatzen ari gara eta emaitzak ikusten dira.

Sailkapena, adibidez.

Euskotren Ligan sailkatzeak estropada dezente gehiago jokatzea esan nahi du. Iazko denboraldiarekin alderatuz, Kontxara, adibidez, ez gara hainitsu joango. Iaz ez genituen beste traineruekiko erreferentziak, aurten gehiago ezagutuko ditugu aurkariak.

Hobekuntzarik nabaritzen al duzue aurreko urtetik hona?

Asteburuan, adibidez, larunbatetik igandera aldaketak egon ziren traineruan. Eta hainbeste aldaketekin emaitza antzekoa lortzeak esan nahi du talde sendoa dugula. Trainerutik kanpo geratzen direnak barruan daudenen maila daukate.

Aurten Euskotren Ligan ere arituko zarete.

Gure lana egin eta hirugarren edo laugarren postuarekin konformatu gabe, ahal den goren begiratzea da gure helburua. Gainera, guztiok batera egingo dugu arraun, ez da erlojupekoa. Parez pare egoteak beste traineruen erreferentziak hartzeko lagunduko digu.

“Emaitza hauek ez dira sorpresa izan”



Lukene Lizaso

2015-08-06

Denboraldi askotako lanaren fruitua da aurten erakusten ari zareten maila.

Nire ustetan azken hiru urteetan blokeari eustea eragin garbia izan da. Baja garrantzitsuak izan ditugu, bai; baina etorri diren guztiak ekarpena egin diote taldeari. Berriak gogo handiarekin eta ikasteko asmoarekin etorri dira eta esperientzia dutenek erantsi egin diote lehenik genuen horri. Taldearen %90 azken hiru urteetako bera da, eta garrantzia handia dauka gu elkar sakon ezagutzeak, baita *Erki* eta Kludio ezagutzeak ere.

Euskotren Ligan sailkatu eta bi bigarren postu egin dituzue.

Ez gaude ohituta horrelako postuetara. Laugarren ibiltzen ginen beti, ozta-ozta lortutako laugarren postuak, gainera. Baina emaitza hauek ez dira sorpresa izan. Bai, harritu egin gaituzte orain arte lortu ez ditugulako, baina gaitasuna genuela bagenekien.

Aurten lehiakorrak izan nahi duzue.

Gogor entrenatu dugu hor egoteko, goian. Guretzat sailkatzea ez da saria izan, tramite hutsa zen hori. Helburua, behin sailkatuta, lehiakorrak izatea zen. Guretzat saria zibogara elkarrekin iristea zen.

Hori lortu duzue.

Aurtengo sentsazio onena niretzat zibogara iritsi eta nahigabe –Nadethek ez digu uzten eta– alboko traineruak ikustea da. Parean gaudela. Hor gaudela. Iaz batzuk jada ziboga emanda bueltan zetoze la gurutzatzen genituen. Eta hori oso gogorra da. Oso luze egiten da.

“Esperientzia ahaztezina da”



Irene Arbeo

2015-08-19

Cuencatik Alacantera, eta Alacantetik Oriora, arraun egitera. Nolatan?

18 urte arte Cuencan bizi nintzen. Ondoren, Alacantera joan nintzen, ikastera. Han hasi nintzen arraunean, 2002 urtean, unibertsitateko lagun batzuekin, elkarrekin kirola egin nahi genuelako. Izena eman genuenean, gutako inork ez zuen sekula arrauneko ontzirik ikusi; ez mugikorrekoa, ez tosta-koa. Arrauna aukeratu genuen guztiok libre genuenean rugby eta arrauna egiteko aukera bakarrik zegoelako, eta kasu horretan, arraunak gehiago konbentzitu gintuen. Ordura arte beste kirol batzuk egin nituen, baina ordutik arrauna besterik ez dut egin.

Arrauna ezberdin bizi al da Cuencan eta Orion?

Cuencan ez dakite arrauna zer den ere. Alacanten, eta oro har, Valentziako erkidegoan, arraun klub asko dauden arren –bereziki tostako arraunetakoak–, kirol ezezaguna da. Jendeari arrauna egiten duzula esaten diozunean, kayakean edo piraguan ibiltzen zarela uste du. Suma Liga daukagu, azaroan hasi eta maiatzean amaitzen dena. Kategoriaz guztietako arraunlariak hartzen dugu parte liga horretan, kade-teetatik hasi eta beteranoak arte; baina hedabideetan ez dauka inongo oihartzunik.

Ilusio berezia egiten al dizu Kontxan parte hartzeak?

Ilusioa estropada guztietan sentitu dut. Niretzat esperientzia ahaztezina izaten ari da; baina, aitortzen dut, Kontxan pentsatze hutsak oilo ipurdia jartzen didala. Han arraunean imajinatzen naiz eta nerbioak dantzan jartzen zaizkit.

“Irabazteko gogo handia daukagu”



Maria Gutierrez eta Nadeth Agirre

2015-09-01

Alderatu iazko eta aurtengo egoera.

Gutierrez: Egoera ezberdina da. Orain konbentzimendu handiagoa daukagu.

Zertan aldatu da taldea?

Agirre: Orain konfiantza handiagoa daukagu, eta gure buruari ere gehiago eskatzen diogu. Lehen konformatu egiten ginen, orain ez.

Gutierrez: Lehen estropadak ondo bukatzea zen helburua, eta orain irabazi egin nahi dugu. Geroz eta jende gehiago dago, atzetik datozenak, estutzen; hortaz, bakoitzak bere onena eman behar du tostetan tokia izateko eta hori entrenamenduetan igarri egiten da.

Itsasoa ala erria. Zer nahiago duzue?

Gutierrez: Niri gehiago gustatzen zait itsasoa.

Agirre: Lehen itsasoari errespetua nion. Urtetik urtera konfiantza –norberarena eta taldearekiko duguna– handitzen joan da, eta, orain, nahiago dut itsasoa.

Maria, zuretzat patroi batek nolako izan behar du?

Gutierrez: Niri Nadethen transmititzen didan gauzarik garrantzitsuen segurtasuna da. Berak egiten duen hori ziurtasunez egiten du. Izaera eta pertsonalitate handiko neska da. Hortaz, berak esaten duena eztabaidaezina da. Badakit ondo egingo duela, konfiantza guztia dut beregan.

Eta zuk zer eskatzen diozu arraunlari bati?

Agirre: Traineruan gauden momentuan ni errespetatzea. Niri batzuetan iruditzen zait agindu egiten dudala, baina agindu egin behar dut. Bestela ez didate kasurik egingo.

SAN MIGUEL LIGA



Banderak bai, nahi adina ez

Duela lau urte itzuli zen ohiko tokira, lehen mailara. Geroztik **udaletzeko balkoira igo nahi izan dute**, banderak irabaztea izan baitute lau urtetan helburu. Aurten, bi bandera lortu dituzte: Donostiakoa eta Meirakoa.

TESTUA: OLATZARTOLA
ARGAZKIAK: KARKARA

Helburua irabaztea da. *Oriok irabazteko beharra dauka*, azaldu du Igor Makazaga entrenatzaileak. Behin mailaz igota, Orioren helburua ez zen kategoriari eustea, baizik eta onenen artean onena izatera iristea. Geroztik lau pasa dira, eta, lau urteren buruan Oriok ez du koroarik ez eta Kontxako banderarik lortu.

Denboraldi honetan bi bandera lortu dituzte oriotarrek. Batzuentzat ez da txapela kentzeko modukoa; beste batzuentzat, ordea, bandera kopuruak ez du zehazten Ligan emandako maila. Dena den, Itziarko lehengusuek ere argi utzi dute Orio banderaren aldeko lehian ibiliko dela Oriok estropada txarra egin arren ere.

Ibon Huegun, esaterako, Kontxarailusio handiarekin iritsi zen, nola neskekin, hala mutilekin; eta ilusioa denboraldian zehar egindako lan txukunak piztu zion. *Neskak demostratu dute Euskotren Ligan oso ondo jardun direla, San Juan eta Zumaiak jada hain urrun ez daudela*, azaldu du Huegunek; eta, mutilen inguruan ondorengoa esan zuen: *udaran nahiko erregular ibili gara Ligan*.

Neguan sentsazio onak

Motorrak berotzen aritu ziren neguan, udarari begira lanean. Maila ona eman zuten neguan: *gauzak ondo egin ditugula uste dugu*, zehaztu zuen udara hasieran Josu Indok. *Hori era-kustea bakarrik falta zaigu orain*.



IGOR MAKAZAGA

“ELKARTEAK PAUSO BAT AUERRERA EMAN BEHAR DU, ETA NIK ATZERA”

Erabaki zaila izango zela imajinatzen dut...

Oso era naturalean izan da guztia eta horrela behar zuen izan. Finean, Oriok irabazi egin nahi du eta irabazteko beharra dauka. Guk ez dugu hori lortu eta horrek kezka sortzen dit.

Aukera nuen elkartearen aldetik hurrengo urtean jarraitzeko, baina nik uste dut erabaki zuzenena eta elkartearen etorkizunerako egokiena, ni alde batera gelditzea dela eta beste aukera batzuk bilatzea dela.

Duela lau urte, Orio lehen mailara igotzea lortu zenuen.

Hori lortu genuen eta ni oso pozik eta gustura nago. Lau urte horietako lanarekin gustura nago. Baina beharrak ez dira berdinak duela lau urtekoak eta oraingoak. Orain irabazteko beharra dago. Kirolariak garen heinean, oso naturala da hori, eta ez gara helburuak betetzen ari.

Erreferente nagusi diren estatuko txapelketa, Kontxa eta Liga ez ditugu irabazi. Banderak bai, baina ez hiruretako bat irabaztea. Eta hau kirola da eta horrela ulertu behar da. Elkarateak pauso bat aurrera eman behar duen bezala, niri pauso bat atzera ematea tokatzen zait.

Kontxan bestelako emaitza bat lortuko bazenu, egoera ezberdina litzateke?

Ez Kontxan bakarrik denak. KAEn egon ginenean 12 garaipen izan genituen, jokaturako guztia irabazi genuen. Azken hiru urtetan, TKEra bueltatu ginenetik, bederatzik bandera eta hamar garaipen izan ditugu. Falta izan zaiguna erreferente horiek lortzea izan da.

Lortu dugu arestian aipaturako hiru txapelketetan bigarren gelditzea, baina sekula ez irabaztea. Orduan, pazientzia agortu egiten da eta kezka areagotu. Testuinguru horretan, naturalena ni joatea da.

Erregularitasun handiko denboraldia

Ia beti podiumeko postuetan sailkatu dira, denboraldi hone-tan, Mirotzak. Herren egin duten estropada batzuetan salbu, gainontzekoetan onenen artean helmugaratu dira. Liga ere podiumeko hirugarren koskan amaitu dute, baita Kontxa ere. Baina, bi alditan ere lortu dute onen artean onenak izatea: Donostian IV. Eusko Label bandera lortu zuten eta Meirran BandeiraIlla do Samertolameu astindu zuten.

Erregularitasunean maisu izan dira Ama Guadalupekoak. Orbañanosen aginduetara izan diren hondarribitarrek TKE Ligako 13 bandera lortu dituzte. 19 banderatik 13. Inoiz lortu den zenbakirik potoloena lortu du oriotarrak. Entrenatzaillea ez da taldeko oriotar bakarra, Asier Puertas arraunean eta Txomin Orbañanos laguntzaile lanetan baitaude.

Tosta lortzea amets

Hemeretzi arraunlari ibili dira traineruan tostan lekua izateko borrokan, Irakoitz patroiz zutela. Hemeretzi horietatik hamahiruk lotzen dute estropuarekin arrauna toletean, hamairuk egiten dute arraun. Eta lehen taldean tokia izatea da oriotar ororen ametsa. Andoni Camposek ere aitortu zuen hori: *guk -Orioko arraunlariok- hemen jokatu nahi dugu, baina argitu zuen: hemen sartzea oso zaila da.*

Amets hori bete duten bederatzik daude, egun, traineruan: Urko Redondo, Josu Ostolaza, Josu Indo, Haritz Etxebeste, Unai Etxeberria, Irakoitz Etxeberria, Iñaki Errasti, Ibon Arruti eta Iñigo Mujika. Azken honek esandakoa: Guk amets berdin-berdina genuen. 18 urte bete, seniorretara igo eta lehen taldeanaritzea, eta zehaztu du: *2008an, hiruk lehen trainerurako saltoa egin genuen. Ametsa bete genuen. Gero, beste amets bat izaten da: traineruan sartu nahia.*

SAN MIGUEL LIGA

“Onenen artean egoteko maila dugu”

Josu Indo

2015-07-15

**Negu ona egin duzue, eta taldea indartsu dagoela dirudi.**

Bai guk negu ona egin dugula eta gauzak ondo egin ditugula uste dugu. Hori erakustea bakarrrik falta zaigu orain. Egia da maila oso altua dagoela aurten ligan, baina uste dut onenen artean egoteko maila badugula.

Nola ikusi duzu ligaren hasiera?

Malagan, hirugarren egin genuen, baina ez ginen oso gustura geratu arraunean ez genuelako oso ondo egin. Galizian, berriz, kontrakoa pasa zaigu: arraunean gustura egin dugu eta bi emaitzak oso txarrak izan dira. Guk uste dugu bide onetik goazela, eta halako batean emaitzak etorriko dira. Ezin dugu asteburu batengatik etsi. Pena da, bai, eta puntu askoko tartearekin atzean geratu gara, baina pixkanaka egoerari buelta emateko esperantza dugu.

Galizian estropada onak egin zenituztela esan duzu. Zorte txarrak asko eragin dizuela uste al duzu?

Guk hori uste dugu, behintzat. Baina, tira, Galizian inoiz ez dago jakiterik.

“Sakrifikatuz gero, ontzia azkarrago doa”

Iñigo Mujika

2015-09-10

Askoren ametsa bete duzu: harrobian hasi zinen eta lehen taldean amaitu duzu.

Guk amets berdin-berdina genuen. 18 urte bete, seniorretara igo eta lehen taldean aritzea. 2008an, hiruk lehen traineerrurako saltoa egin genuen. Ametsa bete genuen. Gero, beste amets bat izaten da: traineruan sartu nahia. Hasieran ordezkoa zara, estropada batzuk jokatzeko dituzu...

Orain, traineruko arraunlari finkoetakoa zara.

Lehen urtean izan ezik, estropada erdiak egin nituela eta ez nuela Kontxa jokatu, gainontzean estropada gehienak jokatzekeo suertea izan dut.

Lasaitu egin zara entrenatzailearen konfiantza duzuetik?

Postua irabazi baino, nahi duzuna trainerua ahalik eta azkarren ibiltzea da. Horretarako zu sakrifikatzen bazara, trainerua, teorian, azkarrago joan beharko luke.

Galtzean baino, irabazitakoan taldea egitea errazagoa da...

Kanpoan gelditu denarentzako ere ez da erraza. Poza dauka, taldeagatik; baina barruan ez egotearen tristura ere bai.





KARKARA

Lehen bandera elkarrekin

Jon Agirrezabala eta Odei Arrizabalaga

2015-08-13

Biak itziartarrak izateaz gain, sendikoak ere badira. Arraunak ere batzen ditu bi lehengusuak, urte mordoan elkarrekin egin baitzuten arraun Zumaian. Orain, berriz elkartu dira Orion.

OLATZARTOLA

Elkarrekin hasi zineten arraunean?

Jon Agirrezabala: Zumaia Kontxan sartu zen azken aurreko urtean hasi nintzen arraunean. Gaztetan parranda gehiegi eginda, horrekin bukatzeko erremedioa behar nuen, eta arraunean hasia izan zen konponbidea.

Odei Arrizabalaga: Lehengusua arraunean hasi zela-eta, nik ere probatzea pentsatu nuen. Ordura arte arraunak ez zidan sekula atentzioa eman, baina lehengusua ibiltzen hasi zenean, arraunak erakarri egin ninduen.

Hasieran ni nintzen Itziar inguruko bakarra. Baina gero jende gehiago animatu zen eta batela osatzeko aukera izan genuen. Ordutik, Zumaian egin ditut arrauneko urte guztiak, iaz arrauna albo batera utzi arte. Lesioak izan nituen eta kokoteraino amaitu nuen, erreta oso, hortaz uztea erabaki nuen. Argi neukan erabakia.

Zumaian izan zenuten aukera elkarrekin arraun egiteko?

Agirrezabala: Nik emazteari esan nion arrauna utziko nuela Odeiekin arraun egin arte, lehenago ezetz. Baina 2008an, arrauna uztera nindoanean, nire azken denboraldian, Odeiek koska bat gora egin zuen eta elkarrekin arraunean aritzeko aukera izan genuen.

Uztekotan zinela esan duzu, Jon.

Agirrezabala: Uzteko erabakia hartu nuenean eskaintzak etortzen hasi zitzaizkidan. Azkenean lehendabizi Santurtzi-

ra eta ondoren Portugaletera joan nintzen. Iaz ez genuen esperotakoa lortu, alde horretatik ez zen denboraldi ona izan. Jada adinean gora noa eta arraunaren azken urteak gelditzen zaizkit, azken etapa honetan berriz ere Odeiekin aritzeko aukera izateak asko motibatzen ninduen.

Eta non, Orion.

Agirrezabala: Oriok estropada txarra egin arren aurrean ibiliko dela badakizu; eta arraunean ondo eginez gero, bandera lortzeko lehian izango dela. Aukera ederra zen.

Zuri ere eskaintza erakargarria egin zitzaizun Odei?

Arrizabalaga: Niretzat salto handia izan da Zumaia tik hona etortzea. Ziurrenik zumaiarrei ez zaiela nire erabakia asko gustatu, baina tira... Aurtengo denboraldian teknika eta fisikoa findu behar ditut, hurrengo urtean tokia izateko.

Berriz ere elkarrekin aritzeak ilusioa egingo zizuen, ezta?

Agirrezabala: Deia lehendabizi Odeiek jaso zuen. Niri Igo-rrek eskaintza egin zidanean banekien bera hemen izango zela. Horrek eragina izan zuen nire erabakian. Azkenean polita da lehengusuarekin berriz ere arraun egiteko aukera izatea. Eta, kasualitatea, biok lortu dugun lehen bandera elkarrekin lortu dugu, Orion.

Arrizabalaga: Lagunak eta gertukoak taldean izatea beti da ona. Eta, kasu honetan, lehengusuarekin batera arraun egitea oso polita da, bai.

KONTXA



Tela puskarik preziatuena, Kontxako bandera

Begiak dir-dir, ahotsak dar-dar, ileak puntan eta irribarreak ahoan. Arraunlari eta arraunzale guztiak hunkitzen ditu Kontxako estropadak. Aurten banderarik preziatuenak geltokia Orion izan ez arren, lortu du oriotarrei zirrara sorraraztea.



TESTUA: OLATZARTOLA ARGAZKIAK: KARKARA ETA DIARIO VASCO

1879. Bizkaiko Golkoko estropadarik zaharrena egin zen urtea, banderarik preziatuena lehen aldiz astindu zena, euskaldun askorentzat ogibide zen arrantzatik eratorritako kirolak Donostiako Kontxako badian habia bilatu zuen urtea.

1879 urteko arrakasta medio 120 bider egin dena, Oriok trainerua 80 aldiz uretaratu duena eta bandera etxera 31 aldiz eraman du duena, palmaresean lider kokatzen duena.

Arraunzaleak eta ez zaleak biltzen dituen estropada, itsukeriak indarra hartzen duena, egutegian gorritz margotzen diren hiru asteburuek osatzen dutena, arraunaren olinpiada bilakatu dena.

Kontxako Banderaz ari gara.

120 edizio eta 31 bandera

Ia hamarkada guztietan utzi du marka Oriok. Lehenengoa 1901ean izan zen, Lersundi traineruaren gidaritza Manuel Olaizolak zuenean. Kontxako estropaden 17. edizioa izan zen Oriok bandera astindu zuen lehena. Orduetik hona beste 30 aldiz lortu du tela preziatua: 1909an, 1910en, 1916an, 1919an, 1923an, 1925ean, 1933an, 1939an, 1040an, 1042an, 1944an, 1951n, 1952an, 1953an, 1955ean, 1958an, 1964an, 1970ean, 1971n, 1972an, 1974an, 1975ean, 1983an, 1992an, 1996an, 1997an, 1998an, 2000an eta, azkenekoz, 2007an.

Lehen urtetik hona guztiz aldatu da badiaren itxura, eta ez estetikoki soilik. Hasieran arraunzaleak erakartzen zituen, bai; baina ez orain adina. Urteen poderioz Kontxako estropaden sona handitzen joan da, eta, orain, arraunzaleak ez ezik jai giroa atsegin dutenak ere batzen dira arraunaren festara.

129 urte eta gero, emakumezkoak aintzat hartu ziren

Baina urte hauetan guztietan aldatu den gauza bakarra ez da giroa. 129 urte igaro behar izan ziren emakumezkoen presentzia izateko Donostiako uretan. 2008an egin zen emakumezkoena lehendabizikoz.

Zortzi aldiz uretaratu dira emakumezkoak Kontxako banderaren bila. Lau talde aurrez aurre, 2.778 metro aurretik. Txiki traineruko arraunlariak 2010 urtea geroztik Kontxan ez sailkatzeagatik zuten arantza iaz kendu ahal izan zuten. Aurten koska bat egin dute gora, eta sailkatzea bete beharraz. Bandera irabazteko gosez ziren arren, amets hori ezin izan dute bete.

Aurten, gainera, berdintasunerako bidean pauso bat eman da. Sariak hobetzea erabaki du antolakuntzak. Besteak beste, iaz baino 2.000 euro gehiago irabazi ditu aurten irabazleak, San Juanek.

Orionez, baina bai oriotarrek

Batelerak izan dira, beste behin, Kontxa konkistatu dutenak. Gizonezkoetan ere bandera ez da Oriora etorri, baina oriotar batek irabazi du. Jon Salsamendik gidatzen duen Urdaibaik estropadari 180ºko bira eman eta lehen igandeko emaitza iraultzea lortu zuen. Bigarren urtez jarraian bermeotarrek irabazi dute Kontxako bandera.

Ibon Gaztañazpi, ETB1en aurkezten duen Herri People saioan, Bou Bizkaiako entrenatzailearekin bildu zen Kontxa amaitu berritan, sinbolikoki bada ere bizitzan arrakasta eman edo kentzen duen bandera eskuetan zuela. *Oso harro* eta *oso gustura* zegoen oriotarra.

Irabazi ez arren, egindako estropadarekin harro zeuden Orioko arraunlariak. Kanpora estropadaren buruan joan arren, ziabogan aurre hartu zien Urdaibaiek. Oriotarrak eusten saiatu arren, alde egin zuten urdinek.

Irabazi edo galdu, Kontxa beti da berezia. Kontxak beti jartzen du oilo-ipurdia. Nerbioak beti izaten dira dantzan. Denboraldiaren azken hondarrean daudelako-edo, beti erortzen da malkoren bat edo beste. Atzera begirako bat egiten da, sarritan, Kontxan; baina aurrera begira ere jartzen dira asko eta asko. Azken paladak izaten dira batzuentzat, eta arraunaren harra hazi egiten da beste batzuentzat.



KONTXA





KONTXA



KONTXA

“Aurten irabazteko gogo handia daukagu”

**Maria Gutierrez eta Nadeth Arruti**

2015-09-01

Iaz baino konbentzimendu handiagorekin iritsi dira Kontxara. Sailkatzea betebeharra da. *Nikuste dut kontzienteagoak garela ostegunean bai ala bai barruan egon behar dugula*, dio Agirrek. Pasa den urtean, ordea, sailkatzea ametsa zen. *Niri oroitzean oilo-ipurdia jartzen zait oraindik*, dio Gutierrezek eta gaineratzen du Arrutik *oso berezia, hunkigarria, izan zen*. Xedea ezberdina izan arren, Kontxan jokatzeko ilusioa beti handia dela aitortu dute.

“Kontxan pentsatzeak oilo ipurdia jartzen dit”

**Irene Arbeo**

2015-08-19

Arraunaren ertz guztiak ezagutzeko gogoak Oriora ekarri du Alacanten arraunean dabilen cuencatarra. *Niretzat esperientzia ahaztezina izaten ari da; baina, aitortzen dut, Kontxan pentsatze hutsak oilo ipurdia jartzen didala*, aitortu du Arbeok. *Han arraunean imajinatzen naiz eta nerbioak dantzan jartzen zaizkit. Arraunlarietzat eta oriotarrentzat dagoen estropadarik garrantzitsuen da, eta han arraun egitea gustatuko litzaidake.*

“Atsedanak neurtu behar dira Kontxara topera iristeko”

**Lukene Lizaso:**

2015-08-06


Estropada berezietan bereziena da Kontxa, baina Orioko estropada ere berezia izan da oso Lizasorentzat: *Zubi azpitik igarotzeko momentu hori... oilo-ipurdia jartzen zait oraindik*. Zarauzkoa ere. *Zarautz niretzat oso berezia da, hasteko ama zarauzitarra dudalako*. Zarauzko estropadaren ondoren, Kontxan jarri zuten fokua. *Aldaketaren bat edo beste izango dugu entrenamenduetan. Atsedanak neurtu behar dira, adibidez, hara topera iristeko.*

Sailkapen estropada**1. Igandea****2. Igandea**

@karkara.eus/aiaorio/
1441375586202



@karkara.eus/orio/
1441709299636



@karkara.eus/orio/
1442301005699



“Herriko giroak areagotu egiten du Kontxarako ilusioa”

Iñigo Mujika
2015-09-10



“Bukaeran indartsu egoteko entrenatu dugu”

Jon Agirrezabala
2015-08-13

Liga hasieran ere Kontxa buruan izaten dute arraunlariak. Entrenamenduak ere Ligan topera egoteko prestatu arren, Kontxa beti dute presente. *Taldea lasaiago hasi zen eta pixkanaka-pixkanaka, esponentzialki, indartzen eta hobetzen joan gara. Argi zuten ez zutela iazkoa gertatzea nahi, sendo hasi ziren, topera, eta amaieran makaldu. Hortaz, aurten, bukaeran indartsu egoteko pentsatu zituzten entrenamenduak, azaldu du Itziarko arraunlariak.*



“Gurekin erabaki nahi izatea garrantzitsua da”

Ibon Arruti
2015-09-15

Kontxan pentsatze hutsak ileak puntan jartzen dizkiete arraunlariak. Ahotsak dar-dar eta begiak dir-dir egiten die arranpa igarotzean. Une horretan hunkituta zegoen Ibon Arruti Kontxako bigarren igandean: *Azalari begiratu besterik ez dago, oilo-ipurdia daukat. Hau ikaragarria da. Hau bezalakorik ez dago.* Hitz horiek esan zituen Arrutik, irribarretsu, arranpa horiz jantzita zegoenean, zaleak oihuka eta txaloka ari zirenean.



Zaleak kontxan



@karkara.eus/orio/
1441308464380



Denak balio du?



@karkara.eus/orio/
1441607862543



Kontxako argazkiak



@karkara.eus/orio/
1442212463329



